

Egun on,

Orain aste batzuk bi udaltzain eskuhartze bat egitera joan eta herritar baten erasoja jasan zuten. Horren ondorioz bi lankideek baja hartu behar izan zuten. Hau dela eta, Arrasateko Udaleko Enpresa Komiteak adierazi nahi dugu:

1. Gure babes osoa helarazi nahi diegu erasotuak izan diren bi lankideei.
2. Beren lanaren baitan izandako eraso bat izan arren, ulertzen dugu kasu honetan Udal Gobernuak bazuela nolabaiteko erantzukizuna egoeraren larritasuna aurrez saihesteko. Horregatik eskatzen diogu hartu ditzala hartu beharreko neurri guztiak, hemendik aurrera horrelakorik berriro gertatu ez dadin, eta bermatu ditzala gutxiengo baldintzak langileek beren egin beharra ahalik eta segurtasun handienarekin burutzeko.

ARRASATEKO UDALEKO ENPRESA KOMITEA